Se adjuntará asimismo en nombre y teléfono del personal administrativo encargado de las relaciones con el Ayuntamiento, recepción de avisos puntuales, resolución de los mismos, etc.

12.- INFORMES

1.- Los adjudicatarios se comprometerán a presentar, en caso de serles adjudicado el servicio, un **Informe Técnico mensual** antes del día 15 del mes siguiente, que se acompañará a la factura, en el que se recojan todas las actuaciones realizadas en el mes, en el que al menos, se indique:

a) Volumen y tipo de material empleado durante el mes.

b) Relación de los avisos puntuales atendidos con especificación del tipo de aviso y su resolución, donde conste los puntos de cebado o colocación de los cebos, día y hora de actuación y el contacto con el vecino.

c) Las actuaciones de choque o de mantenimiento desarrolladas durante el mes.

d) Una valoración de los focos más conflictivos existentes en el municipio.

En dicho informe se acompañarán planos callejeros donde se señalen cada una de las actuaciones de mantenimiento y/o campañas intensivas (Arquetas, alcantarillas, etc.) en las calles del municipio y zona de avisos.

Por otra parte se indicará mensualmente los solares que por su estado de conversación pueda suponer un foco de roedores y requieran una actuación de limpieza por parte del Ayuntamiento o requerimiento al propietario.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/2814 fUvBQjSRcK

Getxo

Sinatua: 01/02/2024 9:36:07 JESUS ATECA ACEBO (Responsable de medio ambiente / Responsable de medio ambiente)
Firmado: 01/02/2024 19:02:47 IÑIGO URKITZA YAÑEZ (Ingurumena, Hirigintza-disziplina, -kudeaketa eta -planginza eta Turismo zinegotzia / Concejal Área Planeamiento,Gestión, Disciplina Urbanística, Medio ambiente y Turismo.)

2.-La empresa adjudicataria presentará al final del ejercicio, y antes del 31 de enero del año siguiente, un **Informe Técnico Anual** donde se refleje junto al volumen total y tipo de materiales empleados durante el año, los avisos atendidos, las actuaciones en centros educativos y guarderías públicas, mercado y residencia municipal así como el estado del municipio, estimación del volumen de la población de roedores y su variación respecto a años precedentes, eficacia del programa ejecutado y una evaluación de los resultados obtenidos.

En la oferta se han de adjuntar los modelos de los impresos que se cumplimentarán para la emisión de los informes.

13.- SANCIONES

Aquellos trabajos cuya ejecución sea deficiente deberán ser realizados de nuevo, siendo el adjudicatario responsable ante terceros incluido el ayuntamiento de los daños que pudieran producirse por tales deficiencias.

13.1.- FALTAS LEVES

Aplicación defectuosa.

Dosis incorrecta de producto.

Mantenimiento incorrecto de uno o varios sensores trampa.

No ejecución de un tratamiento y/o inspección del algún centro o dependencia municipal o de alguna zona del exterior en tiempo correcto.

No ejecución de un tratamiento puntual o planificado en el plazo señalado en el Plan de Control o en los pliegos.

Producción de molestias leves que se podrían haber evitado a los vecinos.

Incumplimiento leve de las medidas de seguridad.

Dichas faltas podrán ser penalizadas hasta en un 2% del coste de ejecución del trabajo en cuestión, incluido el coste del material.

En cuanto a la demora en el plazo aprobado para la actuación por cada 24 horas de más la penalización será de 50 €.

13.2.- FALTAS GRAVES

Se considerarán faltas graves y podrán ser causas de resolución del contrato las siguientes:

Getxo
Sinatua: 01/02/2024 9:36:07 JESUS ATECA ACEBO (Responsable de medio ambiente / Responsable de medio ambiente)
Firmado: 01/02/2024 19:02:47 IÑIGO URKITZA YAÑEZ (Ingurumena, Hirigintza-disziplina, -kudeaketa eta -plangintza eta Turismo zinegotzia / Concejal Área Planeamiento,Gestión, Disciplina Urbanística, Medio ambiente y Turismo.)

Incumplimiento de las obligaciones asumidas por el adjudicatario y no se consideren faltas leves.

Desobediencia sistemática de las directrices marcadas por el Ayuntamiento.

La no realización de los trabajos programados de uno o varios centros o dependencias municipales, o de parte o la totalidad de las zonas exteriores.

Falta o incorrecta instalación y/o no funcionamiento de al menos un sensor trampa durante un período de más de 2 días.

No ejecución de cualquier tratamiento puntual.

La utilización de productos que incumplan la normativa.

Reiteración de 2 infracciones leves.

Poner en peligro a personas por incumplimiento de las Normas de Seguridad.

Falseamiento de informes sobre trabajos efectuados.

En cuanto a la demora en el plazo máximo para dar respuesta por cada 24 horas de más la penalización será de 100 €. El resto de infracciones graves se penalizarán con un importe igual al doble del coste del servicio concreto o la resolución

ARDURADUN TEKNIKOA
RESPONSABLE TECNICO
Área Medio Ambiente
Ingurumen Alorra

ZINEGOTZIAREN ONIRITZIA
VºBº CONCEJAL
Área Medio Ambiente
Ingurumen Alorra

CSV: GET/CSV/2024/2814 fUvBQjSRcK
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/2814 fUvBQjSRcK

Getxo

Sinatua: 01/02/2024 9:36:07 JESUS ATECA ACEBO (Responsable de medio ambiente / Responsable de medio ambiente)
Firmado: 01/02/2024 19:02:47 IÑIGO URKITZA YAÑEZ (Ingurumena, Hirigintza-disziplina, -kudeaketa eta -plangintza eta Turismo zinegotzia / Concejal Área Planeamiento,Gestión, Disciplina Urbanística, Medio ambiente y Turismo.)

ANEXO I: CENTROS EDUCATIVOS PUBLICOS.

1.- C.E.P. ANDRA MARI

2.- C.E.P. SARATXAGA

3.- IKASTOLA GEROA

4.- IKASTOLA GOBELA

5.- C.E.P. JUAN BAUTISTA ZABALA

6.- C.E.P. SAN MARTIN

7.- C.E.P. LARRAÑAZUBI

8.- C.E.P. ROMO

9.- C.E.P. SAN IGNACIO

10.- C.E.P. ZUBILLETA

11.- C.E.P.A. (Centro de Educación Permanente de Adultos)

12.- ESCUELA DE MUSICA

13.- OFICINA DE TURISMO

14.- GUARDERIA EGUSENTIA

15.- AULA AMBIENTAL

DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK HILTZEKO ETA ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- XEDEA

Lehiaketa honen xedea da adjudikatzea Getxoko Udaleko desinfektatzeko, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko zerbitzua, udal mugarte osoa hartuko duena udal eskumeneko esparruetan: bide publikoak, udal eraikinak eta abar.

2.- ESPARRUA

Desinfektatzeko, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko zerbitzua Getxoko gune publiko guztietan emango da. Lan esparru hauek hartzen ditu barnean:

- Arratoiak hiltzea.
- Desinfekzioa eta intsektuak hiltzea. Izurrien kontrola.
- Ohartarazpenak jasotzea.

3.- IRAUPENA

Adjudikazioa indarrean sartuko da kontratua sinatzen den unean, eta bi urteko iraupena izango du, hasiera batean. Urtez urte luzatu ahal izango da, eta iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urteko aldia iraun. Orduan, lehiaketa berri bat egin beharko da.

4.- LIZITAZIOAREN GEHIENEKO ZENBATEKOA

1).- Lehiaketa honen lizitazio zenbatekoa 45.000 eurokoa da urteko, BEZ BARNE, eta ezingo du gehieneko muga hori igaro. Kontuan hartu behar da arratoiak hiltzeari dagokion BEZa % 10ekoa dela eta kontzeptu horrek kontratuaren % 85 hartzen duela, eta desinfekzioarena eta intsektuak hiltzearena % 21ekoa da, eta kontzeptua horrek kontratuaren % 15 hartzen du.

2).- Ordaintzeko modua. Hileko faktura behin hila amaitzean igorriko da, eta horrekin batera erantsiko dira fakturatutako hilean izandako ohartarazpenei dagozkien jarduketa parte guztiak.

5.-DESINFEKTATZEKO, ETA ARRATOIAK ETA INTSEKTUAK HILTZEKO ZERBITZUA EMATEKO ETA ZERBITZUA KONTROLATZEKO BEHARREZKO EZAUGARRI TEKNIKOAK.

1.- Getxo desinfektatzeko eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko zerbitzuan **gutxienez sartuko da 5. kapituluan jasotakoa.**

A: ARRATOIAK HILTZEA.

1) Kolpe intentsiboko hiru kanpaina udalerri osoan arratoiak hiltzeko, eta urtean zehar mantentzeko.

Kolpe kanpaina estolderia sare osoan egingo da (saneamendua, euria, udal sare elektrikoa). Estolden hormetan jarriko dira biozidak, beti karraskariak iristeko moduan. Biozida horiek ezin izango dira ingurumenera pasatu ur korronteengatik, euriarengatik eta abarrengatik. Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, kanpaina intentsibo horien iraupena zehaztu beharko dute, baita jarduteko asmoa dagoen puntuen kopurua ere. Halaber, adieraziko da zenbat aplikatzaile arduratuko diren lana egiteaz.

Zerbitzua eman den estoldetako tapak behar bezala markatuko dira, eta seinaleztatuta geldituko dira, udal teknikariek jakin dezaten estolda bakoitza tratatuta dagoen ala ez.

Tratamendu guztiak lan parte batean islatuta geldituko dira. Bertan, honako gorabehera hauek erregistratuko dira: lekua (koordinatuak adieraziz geoerreferentziatuta), erabilitako produktuak eta kopurua, infestazio indizea eta presentzia adierazleak, estolderiaren egoeran hautemandako anomalia nabarmenak, aplikazioaren langile arduraduna.

Gorabeherak (koordinatuen bidez) geoerreferentziatutako) puntuari lotuko zaizkio PDAren, tabletaren edo antzeko gailuaren bidez, aztertu ahal izan daitezen. Datu horiek automatikoki bidaliko dira Informazio Geografikoko Sistemara.

Kolpe kanpaina bakoitzaren ondoren, txosten bat egingo da, egindako jarduketekin.

2) Kolpe kanpainetatik kanpo, etengabe berrikusiko da estolderia, infestazio egoera ezohikoak hautemateko. Horretarako, beita edo beste edozein elementu baliodun jarriko da, informazio hori eskuratzeko aukera emango duena, horrela dagozkion arratoiak hiltzeko tratamenduen bidez egoera ezohikoei erantzuteko.

3) Jarduketa kronograma bat egitea. Tratamenduek zorrotz jarraituko diote ezarritako kronogramari. Kronograma hori enpresa lizitatzaileak proposatu beharko du bere eskaintzan, eta adjudikazioaren ondoren kontratuaren udal arduradunak onetsi beharko du. Kronogramak

urteko egutegi baten arabera zehaztuko du (hilabeteka banatuta) egin beharreko lana eta horretarako beharrezko langile kopurua.

4) Bide publikoan karraskariak ikusi izanagatik arratoiak hiltzeko zerbitzu zehatzak, Udalak edo enpresa adjudikaziodunak hauteman dutelako edo herritarrek salatu dutelako. Enpresak erantzuna emango dio, gehienez ere, 24 orduko epean. Tratamendua aplikatu beharko du karraskariak hiltzeko produktuetara pertsonek eta "xedea ez diren" beste animaliek horietarako sarbiderik ez izateko moduan. Tratamendu puntual horiek Informazio Geografikoko Sisteman jaso beharko dira.

5) Haur Hezkuntzako/Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak, haurtzaindegi publikoak, udal egoitza: Arratoiak hiltzeko hiru zerbitzu berezi eta ondoren urtean zehar mantentze lanak egitea. Zentro bakoitzaren txosten espezifiko bat erantsiko da. Udako, Aste Santuko eta Gabonetako oporretan egingo dira.

6) Udal zabortegia eta ingurumen esparrua: Urtean behin arratoiak hiltzea eta urtean zehar mantentzea. Dagokion txostena erantsiko da.

7) Saneamendu lanak, eraisketakoak eta abarrekoak aurreikusten badira, Udalak bere ekimenez egingo ditu arratoiak hiltzeko lanak, Udalak egoki irizten badio.

8) Hainbat udal saili materiala ematea hala eskatzen dutenean: saneamenduak, Martikoena eta abar. Hornidura hori zerbitzuaren udal arduradunak eskatu ondoren egingo da.

9) Urtean gutxienez ikuskapen bana egingo da udal eraikinetan, bulegoetan, kultur etxeetan, liburutegietan, ingurumen geletan, tutoretzapeko apartamentuetan eta abarretan. Arazoa konpontzeko beharrezko jarduketak egingo ditu enpresa adjudikaziodunak, baldin eta eraikinetako arduradunek eskatzen badute, beren instalazioetan arazoren bat dagoelako.

10) TRANPA SENTSOREEN BIDEZKO TRATAMENDUA. Arratoiak (eta saguak) hiltzeko biozidekin egindako tratamenduak zabaldu eta konbinatu egingo dira, estolderietan/hustubideetan karraskarientzako sei tranpa sentsore jarriz. Tranpa zuzenean estolderia sisteman jarriko da, eta hodiaren diametrora moldatuko da. Abian jarriko da sentsoreek karraskari baten presentzia hautematean. Hura hilko du tranpatik igarotzean, hagatxoen sistema baten edo antzekoren baten bidez. Tranpa automatikoki berraktibatuko da erabilera bakoitzaren ondoren.

Tranpa sentsoreak zerbitzua eman beharko du urteko 365 egunetan, 24 orduetan, asteko 7 egunetan.

Enpresak aseguratuta izango ditu sentsoreak lapurretetarako eta beste edozein gorabeherataraako, eta guztiz bermatzen du birjarri egingo dituela kontratuaren iraupen aldi osoan. Osorik mantenduko ditu, eta tranpa sentsorea beste batekin ordeztuko du beharrezkoa denean, zerbitzu barik ahal bezain denbora tarte txikia igarotzeko moduan. Tranpa sentsoreek

ez badute mugimendurik hautematen zentzuzko denbora tarte batean, ahalik arinen aldatuko dira lekuz (denbora tarte hori ez da hilabete baino gehiagokoa izango).

Udalak sarbidea izango du jarraipen eta kontrol aplikaziora (edo lizitatzaileak emandako kontrol eta jarraipen metodora), eta, beraz, beharrezko sarbide gakoak izango ditu (2, gutxienez). Sistemak gorabeheren sareko plataformarekin duen egokitzea, bateragarritasuna eta integrazioa hartuko dira aintzat.

Lizitatzaileak zerbitzuaren oroitidazkian aplikazio eta jarraipen plan bat aurkeztuko du, tranpa sentsoreak birkokatzeko eta errotatzeko plana barruan duena, zerbitzua egikaritu bitartean udalerrian ahal den gune handiena hartu dezan.

Lizitazioan eskatu ahal izango da eskainitako tranpa sentsorea erakusteko, haren funtzionamendua, ezaugarriak eta lotutako beste alderdi batzuk aztertzeko.

Erabiliko den sistemak jarduera urrundik kontrolatzeko sistema bat izango du, banako aktiboen kopurua kontrolatu ahal izateko eta eraginkortasuna bermatzeko, jarduera gutxi badu errotatu ahal izateko.

B: DESINFEKZIOA.

1) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta haurtzaindegi publikoak: Hiru desinfekzio tratamendu, eskolako opor aldietan. Adjudikatu eta lehen hilean, laneko plan bat egingo da, eta bertan agertuko da 1. eranskinean zerrendatutako ikastetxe bakoitzean zein egunetan eta ordutegitan jardungo den.

Horren ondoren, ikastetxeetako jarduketa plana bigarren urteko lehen hilean edo luzapen bakoitzaren lehen urtean aurkeztuko da, halakorik badago.

Tratamendu egiaztagiri ofizialak erantsiko dira.

2) Jesusen Bihotza Udal Egoitza: Urteko hiru desinfekzio tratamendu.

3) Urtean gutxienez ikuskapen bana egingo da udal eraikinetan, bulegoetan, kultur etxeetan, liburutegietan, ingurumen gelan, tutoretzapeko apartamentuetan eta abarretan. Arazoa konpontzeko beharrezko jarduketak egingo ditu enpresa adjudikaziodunak, baldin eta eraikinetako arduradunek eskatzen badute, beren instalazioetan arazoren bat dagoelako.

C: INTSEKTUAK HILTZEA.

1) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta haurtzaindegi publikoak: Intsektuak hiltzeko hiru tratamendu, eskolako opor aldietan. Adjudikatu eta lehen hilean, laneko plan bat egingo da, eta bertan agertuko da 1. eranskinean zerrendatutako ikastetxe bakoitzean zein egunetan eta ordutegitan jardungo den.

Horren ondoren, ikastetxeetako jarduketa plana bigarren urteko lehen hilean edo luzapen bakoitzaren lehen urtean aurkeztuko da, halakorik badago.

Tratamendu egiaztagiri ofizialak erantsiko dira.

2.- Jesusen Bihotza Udal Egoitza Intsektuak hiltzeko hiru tratamendu urtean.

3) Urtean gutxienez ikuskapen bana egingo da udal eraikinetan, bulegoetan, kultur etxeetan, liburutegietan, ingurumen gelan, tutoretzapeko apartamentuetan eta abarretan. Arazoa konpontzeko beharrezko jarduketak egingo ditu enpresa adjudikaziodunak, baldin eta eraikinetako arduradunek eskatzen badute, beren instalazioetan arazoren bat dagoelako.

4) Intsektuak hiltzeko dagozkion tratamenduak egingo dira bide publikoan (faroletan, zuhaitzetan, parkeetan, bide publikora ematen duten eraikinen fatxadetan eta abarretan) liztorrak edo beste edozein intsektu izurrite azaltzen badira, guneko oreka oztopatzen dutenak. Eskaintzan eragin handiena izaten duten bide publikoetako eta gaur egun dauden izurriteak agertzeko aukera dagoen denboraldien aurreko jarduketa prebentiboen plan bat aurkeztuko da.

5) Bide publikoan herritarrentzako arriskutsuak izan daitezkeen erlauntzak badaude, eta udaleko langileek hala erabakitzen badute, enpresa adjudikaziodunak indarrean dagoen legediaren arabera jardungo dute, eta arazoa konpontzeko beharrezko jarduketak egingo dituzte.

D: OHARTARAZPENAK JASOTZEA.

1) Arratoiak hiltzeko, desinfektatzeko eta intsektuak hiltzeko ohartarazpen zehatzei, udal ardurako alorren esparruan (bide publikoa, udal eraikinak, eskolak, etab.), horiek jaso eta hurrengo 24 orduetan erantzungo zaie.

Kostuak kalkulatzeko, jakinarazten da urtean gutxi gorabehera 350 ohartarazpen izaten direla. Tratamendua aplikatu beharko du karraskariak hiltzeko produktuetara pertsonek eta "xedea ez diren" beste animaliek horietarako sarbiderik ez izateko moduan.

Enpresa adjudikazioduna telefonoz edo aurrez aurre jarriko da harremanetan herritarrarekin, eta, horretarako, posible den heinean, telefono zenbakia eta/edo helbidea emango zaio. Ohartarazpena egin ondoren, laneko txosten/parte bat egingo da, eta bertan

jasoko da bertaratzeko eguna eta ordua, arazoaren iturria eta egindako jarduketa, eta ohartarazpena egin duen herritarraren sinadura edo zigilua azalduko da, edo, bestela, lokaleko arduradunarena, ikastetxeen edo udal eraikinen kasuetan.

Udalaren funtzionamenduaren ordutegitik kanpo, ohartarazpen horiek Getxoko Udaltzaingoak egin ahal izango ditu, eta Ingurumen Sailetik egindakoak bezalaxe tratatu beharko dira. Informazio hori guztia Informazio Geografikoko Sisteman sartu beharko da.

E: BESTE ZERBITZU BATZUK.

1) MUXIKEBARRI eta ROMO KULTUR ETXEA eraikinetarako, kontuan hartuta eraikin horiek arratoiak eta intsektuak hiltzeko duten konplexutasuna, kontrol espezifiko eta esklusiboko programa bereziak egin beharko dira, horien egoera uneoro jakin ahal izateko. Eskaintzan proposatutako programa zehaztu beharko da. Lizitazio aldian, enpresek hala eskatuta, bisitatu egin ahal izango dira leku horiek, enpresek tratatzeko sistema onena proposatu ahal izateko.

2) Udal egoitzarako, kontuan hartuta eraikin horrek arratoiak eta intsektuak hiltzeko duen konplexutasuna, kontrol espezifiko eta esklusiboko programa bereziak egin beharko dira, horien egoera une oro jakin ahal izateko. Eskaintzan proposatutako programa zehaztu beharko da. Lizitazio aldian, enpresek hala eskatuta, bisitatu egin ahal izango dira leku horiek, enpresek tratatzeko sistema onena proposatu ahal izateko.

3) Argiteria publikoarekin eta lorezaintzako parterreekin dagoen arazoa ikusita, eskatu da enpresa lizitatzaileek eskaintzan zehaztu dezaten zein izango diren aurreikusitako kolpe kanpainetan egin beharreko jarduketak. Tratamenduen berrikuntza baloratuko da mota horretako guneetan.

4) Eskatu da eskaintzak erantsita izan dezan hondartzetan eta Gobela ibaia udal mugartean igarotzen den tartean egin beharreko jarduketen planifikazioa. Bertan zehaztuko da ibilguetan jarriko diren tratamendu bakoitza, tranpak jartzeko puntuak, kaiolak, gailuak eta abar, baita egingo diren jarduketak ere, aurkeztu daitezkeen aldagaiak kontuan hartuta: emaria, itsasaldiak, lurpeko guneak, harri hondarra, landaredia, belar garaia edo moztu berria eta abar. Baloratuko dira gune natural horietan dauden izurriteekin batera bizi diren espezieentzako kaltegarriak ez diren tratamenduak.

5) Geroz eta labezomorro gehiago daudenez, **labezomorroen aurkako tratamendua barne hartzen duen plan berezia aurkeztu beharko da.** Plan horretan sartu beharko dira bai prebentziozko tratamenduak, bai desagerrarazteko tratamenduak. Hartara, desagerrarazteko tratamenduak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, ikusi ahal diren ordutegietan egingo dira, hau da, iluntzean edo jada ilundu duenean. Eskaintzan argi eta garbi zehaztu beharko dira datak, langileak eta metodologia.

6) Uxoak harrapatzeko lau kaiola izan beharko ditu enpresak eta eskatzen diren udal guneetan edo balkoietan jarri beharko dira. Harrapaketa horiek eta harrapatutako animalien tratamenduak gaur egun indarrean dagoen araudia bete beharko dute. Bestalde, beharrezkoa den maiztasunarekin berrikusi beharko dira, harrapatutako animaliek sufritu ez dezaten eta hil ez daitezen. Halaber, karraskariak harrapatzeko lau tranpa izan beharko dituzte, eta produktu kimikoak erabili ezin daitezkeen guneetan jarriko dira.

7) Horrez gain, kontzientziazio edo marketin kanpaina bat egingo da urtero enpresaren kontura, zerbitzua ezagutarazteko eta horren garrantziaren berri emateko udalerriko herritarrei. Eskaintzan zehaztuko da.

Ezinbestekoa da enpresa adjudikaziodunak bere eskaintzan **"Kontrol plan"** bat aurkeztu dezan, kasu jakinen batean aukera emango duena udal langileek in situ egiaztatzeko hark egindako jarduketak. Horrek aukera emango du jarduketen jarraipena egiteko eta horiek egiaztatzeko, herritarrei balizko erreklamazioen aurrean erantzuna eman ahal izateko. Kontrol plan horretan sartuta egongo da kutxatilak markatzeko sistema bat, udal teknikariek jakin dezaten non egin diren jarduketak.

Horrez gain, kontratuaren garapena planifikatu ahal izateko eta hari jarraipena egite aldera, enpresa adjudikaziodunak Informazio Geografikoko Sistema bat jarriko du eskuragarri (OPEN GIS protokoloa). Horrekin, planoaren gainean, tratamendu programaren barruan edo salaketen ondorioz egindako tratamenduak kontsultatzeko aukera egon beharko da, baita tratatu gabeko guneak ere,eta, horretarako, enpresa adjudikaziodunak sistematikoki sartuko ditu estolderia publikoetako estoldetan egindako jarduketen datu guztiak eta eguneko lan parteak. Bereizi egingo ditu programatutako tratamenduak eta jarduketa puntualak. Sistemaren euskarri softwareak aukera eman behar du aurreko urteetako datu basean dauden datuak sartzeko. Udalak etengabe sartu ahal izango du bertara eta bere datu baseetako datuak etengabe igarotzera eta, behin kontratuaren indarraldia amaitutakoan, programa hori eta bertako datu baseak berriz ere Udalaren jabetzakoak izango dira. Datuak EXCEL© motako edo baliokideko datu tauletara esportatzeko aukera egon behar da. Udalak datu mota horien taula dinamikoak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiekin eta enpresa adjudikaziodunak eguneroko zereginetan jasotakoekin arriskuen eta izurrien dentsitateen zenbatespenaren mapa bat egingo du, planifikazioan eta tratamendu gehiago egikaritzean laguntzeko.

Lan talde bakoitzak ekipamendu informatiko eramangarri bat (PDA, tableta edo antzekoa) izango du, GPSarekin, koordinatuen bidezko geoerreferentzia egiteko, egindako tratamenduen informazio jasotzeko eta datuak transmititu ahal izateko, eta ekipamendu finkoak (ordenagailuak) edo mugikorrak izango ditu, aurretik lortutako informazioa bertara igarotzeko. Datuak igarotzearen indarraldia bi alderdiek ezarriko dute, eta, gutxienez, astean behin egin beharko da. Ekipamendu horien helburua da informazioa ematea, datu moduan, Informazio Geografikoko Sistemari.

Deskribatutako aplikazio informatikoa eta beharrezko ekipamenduak martxan egon beharko dira kontratua hasten den egunetik. Aplikazio horretara ezingo da sartu kontratuaren alor arduradunak baimendu gabeko inor.

6.- ADJUDIKAZIODUNEN BETEBEHARRAK

6.1.- Kontratuaren xede diren zerbitzuak eman beharko ditu nahitaez, baldintza administratiboen pleguan eta baldintza teknikoen plegu honetan xedatutakoaren eta zerbitzuaren alor arduraduneko udal teknikariek emandako jarraibideen arabera.

6.2.- Konpromisoa hartzen du indarrean zerbitzuaren inguruan indarrean dagoen legedia oso-osorik errespetatzeko eta, bereziki, kontratazio aldian indarrean dauden osasunari buruzko arauetan xedatutakoa.

Zentzu horretan, erabilitako metodoa eta proiektua baimenduta egin beharko dira jarduketa esparruan erabiltzeko, eta adjudikaziodunak jarduera legez ezarritako baldintzetan egiteko baimenak, lizentziak eta langileen gaikuntzak izan beharko ditu. Hori justifikatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztuko ditu.

6.3.- Adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguru bat izango du, gutxienez 300.000 € (hirurehun mila euro) estaliko dituena kalte ordainetan. Aseguru horretan, gainera, ingurumena kutsatzeak ekarritako balizko ingurumen arriskuak ere estaliko ditu. Getxoko Udala berariaz agertu beharko da hirugarren moduan dagokion polizan.

6.4.- Enpresa adjudikaziodunak kontratua betetzera bideratuko ditu zerbitzua modu egokian emateko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak. Edozein kasutan, honako hauek izango dira, gutxienez:

Giza baliabideak:

-Kalifikatutako goi teknikaria, udal alorrarekin kontratuaren jarraipenaren eta betetze mailaren inguruko koordinazio lanak egingo dituena.

- Bi pertsona, aplikatzaileak, kolpe kanpainak garatzera bideratuta, eta bat, gutxienez, pleguaren aurreko apartatuetan deskribatutako jarraipenak egitera. Beharrezko kalifikaziorako egiaztagiri profesionala izan beharko dute. Izurriteen aurkako produktuak aplikatu behar dituztenek uniforme egokiak izan beharko dituzte, indarrean dagoen araudiaren araberako babes eta segurtasun ekipamenduekin. Aipatutako uniformeetan udal identifikazioa izan beharko dute, herritarrek behar bezala identifikatu ditzaten.

Zerbitzuari atxikitako langileen edozein aldaketa kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko zaio, eta hark baimendu beharko du.

Bitarteko materialak

Ibilgailuak- Enpresaren jabetzako berezko ibilgailu bat gutxienez, zerbitzua emateko behar bezala egokituta.

Aipatutako ibilgailuak udal identifikazioa izan beharko du, kontratuaren arduradunak ondorio horretarako zehaztutakoa.

Erabiliko diren produktuak.

Erabili beharreko produktu guztiak enpresa adjudikaziodunak jarriko ditu.

Toxikotasun txikia izango dute pertsonentzat eta etxeko animalientzat, eta teknikoki posible den kutsadura txikiena sortuko dute, zuzenekoa edo zeharkakoa, landareetan edo lursailetan, baldin eta eraginkortasuna frogatuta badago.

Eragile atmosferikoak edo beste batzuk jasan behar ditu, ahal bezain narriadura txikiarekin.

Eraginkortasuna behar beste frogatuta egon beharko da aurreko esperientzien bidez. Horretarako, hori frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

Erabili beharreko produktuak dagozkien baimenen erregistroetan eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egon beharko dira. Inskripzio hori etengabe eguneratuta egongo da. Erregistroaren kopia eta produktuaren segurtasun kimikoko fitxa aurkeztuko dira.

Azaleko tratamenduren bat behar bada, hura beti beitarentzako kutxetan sartuko da, behar bezala seinaleztatutakoetan, kontratuaren hasieran erabakiko den moduan.

Eskaintza ekonomikoetan erabili beharreko produktuen bolumen osoa, marka, ezaugarri teknikoak eta osasuneko erregistroa zehaztu behar dira. Horrez gain, zehatz-mehatz azalduko da noiz erabiliko den produktu bakoitza, tratamenduek zein iraupen izango duten eta horietan zein aldaketa egingo diren tratamenduen eraginkortasuna handitzeko.

Enpresa adjudikazioduna izango da beita leku egokietan kokatzeko arduradun, beren funtzioa bete dezaten, eta uneoro saihestuko da horiek okerreko lekuan kokatu eta beste animalia batzuek produktua irenstean kalteak jasan ditzaten (hegaztiek eta abarrek). Halaber, kutxatilak garbitu egingo dira, karraskariek jandakoen arrastoak kentzeko. Soilik kontsumitu gabeko beitak utziko dira.

7.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Lanak egiteko erabiliko diren teknikek, makinek eta produktuek guztiz errespetatuko dituzte ekosistema naturalak, bertako flora eta fauna eta habitaten dinamika naturala, bereziki

itsas sistemetakoak eta erriberakoak. Adjudikaziodunak konpondu beharko ditu sortutako ingurumen kalte guztiak.

Narriatutako produktuak eta haien ontziak eta paketeak jasoko dira; ondoren, baimendutako hondakin kudeatzaile batek tratatuko ditu.

Betebehar horiek kontratua gauzatzeko baldintza bereziak dira eta kontratuaren funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, arau hauste larria da horiek ez betetzea.

8.- KONTRATUA ALDATZEA

Behar bezala justifikatutako arrazoietan oinarrituta zerbitzua egokiro eskaintzeko langile kopurua murriztu edo gehitu behar bada, adjudikaziodunaren proposamenak ikusirik, onartzeko aukera aztertuko da. Hortaz, adjudikatutako zenbateko ekonomikoak gehitu edo murriztuko lirateke, langileen prezioei erreparatuta.

Aldaketekin (isolatuak edo batera hartuta) kontratuaren jatorrizko zenbatekoa (adjudikazio zenbatekoa) ez da % 10etik gora igoko.

9. KONTRATISTAREN KAUDIMENA

Dokumentazio egokia aurkeztuz, lizitatzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren nahiz gaitasun profesional edo teknikoaren gutxieneko baldintzak dituztela egiaztatzea beharrezkoa da. Beraz, dokumentazioan definitzen diren zerbitzuak garatzeko gaitasun eta esperientzia nahikoak izan beharko dituzte, aurrerago adierazitakoari jarraiki:

KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Negozioen urteko zenbatekoa, bukatu diren azken hiru (3) urteetako negozio bolumen handiena izan duen urteari dagokionez, gutxienez 50.000 eurokoa izatea (BEZik gabe).

KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan kontratuaren xede diren lanen edo zerbitzuen antzekoak egin izana 40.000 biztanletik gorako udalerrietan. Ziurtagiriak erakunde kontratugileak egin edo ikus-onetsi izan beharko ditu, eta gutxienez honako hauek jasoko dituzte:
    - Izenburua edo izena
    - Bezeroa
    - Tokia (udalerria, probintzia, autonomia erkidegoa)
    - Zerbitzuaren ezaugarri orokorrak.
    - Zenbatekoa (BEZa kanpo).
    - Hasiera- eta amaiera-datak.

- Zerbitzuak lanbidea arautzen duten arauak betez eman ziren, bezeroa ase geratu zen eta ondo amaitu ziren.

- Udalerrian tratamenduak egitera bideratutako langileek gutxienez frogatutako 2 urteko esperientzia izan beharko dute Getxon egitea aurreikusitako lan berdinetan. Horretarako, enpresa hautagaiak zinpeko adierazpen bat aurkeztuko du, lan horiek egin dituela dioena.

10.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratuaren ezaugarriei erreparatuz, balorazio-irizpide egokienak aurrerago adierazitakoak dira. % 51 automatikoak dira eta % 49 ez-automatikoak:

*a) IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK, **gehienez 49 puntu**.*

Atal honetan sartuko dira:

ZERBITZUAK ESKAINTZEKO PROPOSAMENA, **gehienez 49 puntu**; ondorengoak baloratuko dira:

a) 5. kapituluko A, B; C eta D apartatuak.
Egin beharreko lanen deskribapen eta analisia eta gauzatzeko proposatutako metodologia baloratuko dira; lizitatzailearen ustez interes berezia duen edozein alderdi osagarri adieraziko da, batez ere, erabiltzaileen eragozpenak arindu eta garbiketa hobetzen duten neurriak. Horrez gain, beste alderdi batzuk ere baloratuko dira, adibidez, eremutan eta azpi-eremutan banatzea, eta kolpe kanpainetako, geroko mantentze lanetako eta jakinarazpen arretarako laneko plana. Lantaldeak antolatzea; kide bakoitzaren zereginak eta arduraldia aipatuko dira eta eskainitako giza baliabideak optimizatu ere bai. Halaber, baloratuko dira produktu kutsagarrien erabilera murriztea, jasangarritasun-irizpideak ezartzea eta ingurumena babestea helburu duten teknikak. **Gehienez 26 puntu.**

b) Baloratuko da bi eraikin berezietako (MUXIKEBARRI eta ROMO KULTUR ETXEA) tratamenduen zehaztasun, eraginkortasun, efikazia eta azterketa maila, baita udal egoitzakoa ere. **Gehienez 4. puntu.**

c) Baloratuko da 5. kapituluko E apartatuan ("Beste zerbitzu batzuk") jasotako 3., 4., 5., 6. eta 7. zerbitzuetan egin beharreko tratamenduen zehaztasun, eraginkortasun, efikazia eta azterketa maila. Hala, zerbitzu horien baitako tratamenduetan berrikuntza ezartzea nagusituko da, bai eta tratamenduak egingo diren guneetan dauden gainerako animaliei kalterik ez eragitea ere. **Gehienez 8 puntu.**

d) Informazio geografikoko sistema: Erabilerraztasuna eta egin beharreko lanerako egokitasuna baloratuko dira, eta hark emandako irudiak jasoko dira. **Gehienez 8 puntu.**

e) Aplikatu beharreko Gis tresna ezartzen laguntzeko lanen gaineko jarraipena eta kontrola egiteko proposamenak. **Gehienez 3 puntu.**

Balorazio globalean onartzeko, formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideetan lizitatzaileek gutxieneko puntuazio atalase bat gainditu beharko dute, kontratazio mahaiak kontuan hartu ez ditzan honako puntuaziora iristen ez diren eskaintzak: hogeitalau puntu eta erdi (24,5) puntu.

*b) IRIZPIDE AUTOMATIKOAK, **gehienez 51 puntu.***

1)- Kontratuaren jarduerak egiteko eskaintza: **gehienez 37 puntu**

Lizitatzaileek eskaintzak aurkezten dituztenean, urteko kanon modura, jardueretarako zerbitzuari buruzko plegu teknikoan definitutako zenbateko guztia hobetuko dute.

Balorazioa honako formula hau jarraituz egingo da:

- Baliozko proposamen gisa onartutako eskaintzarik merkeenari emango zaio gehieneko puntuazioa: HOGEITA HAMAZAZPI (37) puntu.
- Gainerako eskaintzetan, honako formula hau erabiliko da:

Oinarrizko puntuazioa = Gehieneko puntuazioa x Eskaintza ekonomikorik onena.
Aztertu beharreko eskaintza

Eskaintzek ohiz edo neurriz kanpoko balioak izango dituzte, 9/2017 SPKLren 149. artikuluan xedatzen duenerako, HAKLEOk 85. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proposamen ekonomikoarekin batera aurkeztuko da aurrekontuaren justifikazio zehatza, multzoen eta jardueren arabera bereizita eta, aldi berean, langileak, makineria, erregaiak eta abar kontuan hartuta. Horrek aurkeztutako eskaintza teknikoa bermatu beharko du.

2) Pleguan nahitaezkotzat jotakoak ez beste tranpa sentsore bakoitzagatik 1,5 puntu gehituko dira: **9 puntu gehienez ere**.

3) Udalerrian zerbitzu ibilgailu moduan ibilgailu elektriko bat erabiltzeagatik: **2 puntu**

4) Enpresak beste udalerri batzuetan adjudikatutako dituen ibilgailu elektrikoak erabiltzeagatik puntu bat emango da lau ibilgailu elektrikoko: **Gehienez 2 puntu.**

5) Pleguaren arabera derrigorrezkoa den kaiola-kopuruari gehitzen zaizkion kaiolei dagokienez, nahitaezkoa den kopurutik gora eskaintzen diren lau kaiola bakoitzeko puntu bat emango da. **Gehienez 1 puntu.**

11.- ESKAINTZEN AURKEZPENA

1) Eskaintza teknikoetan azalpen laburrak eta garbiak gailenduko dira, eta saihestu egin beharko da eduki garrantzitsurik ez dakarren informazio osagarri guztia.

2.- Baldintza teknikoen plegu honetako 1. eta 6. puntuan adierazitako gutxieneko zerbitzuak betetzeko erabiliko den metodologia zehaztuko da eskaintzetan. Udalerriaren zonakatzea atxikiko da, eta egoki antolatzeko egoki iritzitako banaketa planoak ere bai.

Halaber, lan hauek nortzuk egingo dituzte adierazi beharko da, kolpa kanpainak eta urtean zeharreko mantentze lanak bereizita, eta eskainitako jarduerak burutzeko zenbat ordu edo lanegun behar izango diren (gutxi gorabehera) ere bai.

3.- Zerbitzuaren arduradunaren telefono mugikorra ere adieraziko da. Lokalizatzeko moduan egon beharko da eguneko 24 orduetan.

Halaber, Udalarekin harremanetan egoteko, ohartarazpen puntualak jasotzeko, horiek ebazteko eta abarretarako administrazio langileen izenak eta telefonoak emango dira.

12.- TXOSTENAK

1.- Adjudikaziodunek konpromisoa hartuko dute, zerbitzua haiei adjudikatzekotan, **hilabeteko txosten tekniko** bana aurkezteko hurrengo hilabeteko 15a baino lehen, fakturarekin batera, hilabetean egindako jarduketa guztiak jasoko dituena. Gutxienez honako hauek adierazi beharko dira:

a) Hilabetean zehar erabilitako materialaren bolumena eta mota.

b) Erantzundako ohar puntualen zerrenda, jakinarazpen mota eta ebazpena azalduta. Bertan adierazi beharko dira beita puntuak eta horiek non jarri diren, jarduketaren eguna eta data eta herritarrarekin izandako harremana.

c) Hilabetean zehar egindako kolpe jarduketak edo mantentzekoak.

d) Udalerrian dauden gune gatazkatsuenen balorazio bat.

Txosten horretan herriko planoak agertuko dira, eta bertan adieraziko dira herriko kaleetan egindako mantentze lanetako eta/edo kanpaina intentsiboetako (kutxatilak, estoldak eta abar) jarduketa bakoitzak eta ohartarazpenen guneak.

Horrez gain, hilean behin adieraziko da zein orube izan daitezkeen karraskari ugariko guneak beren kontserbazio egoeragatik, Udalak zeintzuk garbitu behar dituen eta zeintzuetan egin behar zaion errekerimendu bat Udalari.

2.- Enpresa adjudikaziodunak ekitaldiaren amaieran eta hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen **urteko txosten tekniko** bat aurkeztuko du, eta bertan, urtean zehar erabilitako materialen guztizko bolumenarekin eta material motarekin batera jasoko ditu erantzundako ohartarazpenak; ikastetxe eta haurtzaindegi publikoetako, merkatuko eta udal egoitzako jarduketak eta udalerriaren egoera; karraskarien populazioaren bolumenaren zenbatespen bat eta aurreko urtekoarekin izandako bilakaera; egikaritutako programaren eraginkortasuna; eta lortutako emaitzen ebaluazio bat.

Eskaintzan atxiki behar dira txostenak egiteko beteko diren inprimakien ereduak.

13.- ZEHAPENAK

Behar bezala egin gabeko lanak berriz egin beharko dira, eta adjudikazioduna izango da erantzulea gabezia horiengatik hirugarrenei sortu ahal izan zaizkien kalteen aurrean (udala barne).

13.1.- URRAKETA ARINAK.

Gaizki aplikatzea.

Produktuaren dosi okerra.

Tranpa sentsore bat edo batzuk gaizki mantentzea.

Tratamendu eta/edo ikuskapen bat une egokian ez egikaritzea ikastetxeren batean, udal instalazioren batean edo kanpoko guneren batean

Tratamendu puntual edo planifikatu bat ez egikaritzea kontrol planean edo pleguetan ezarritako epean.

Herritarrei saihestu zitezkeen eragozpen arinak sortzea.

Segurtasun neurrien urraketa arina.

Urraketa horiek berezko lanaren egikaritze kostuaren % 2rainoko zehapenarekin zigortu daitezke, materialaren kostua barne.

Jarduketarako onartutako epea berandutzeari dagokionez, 50 eurokoa izango da zehapena 24 ordu gehigarriko.

13.2.- URRAKETA LARRIAK.

Urraketa larritzat joko dira, eta kontratua suntsiaraztea ekarri dezakete honako hauek:

Adjudikaziodunak hartutako obligazioak ez betetzea, urraketa arina ez bada.

Udalak ezarritako jarraibideei sistematikoki ez jarraitzea.

Ikastetxe edo udal instalazio batean edo batzuetan edo kanpoko gunearen zati batean edo osoan programatutako lanak ez egitea.

Gutxienez tranpa sentsore bat falta izatea edo gaizki jartzea/funtzionatzea bi egunez baino gehiagoz.

Tratamendu puntual bat ez egitea.

Araudia urratzen duen produkturen bat erabiltzea.

Bi urraketa arin egitea.

Pertsonak arriskuan jartzea segurtasun arauak ez betetzeagatik.

Egindako lanen inguruko txostenak faltsutzea.

Jarduketarako gehieneko epea berandutzeari dagokionez, 100 eurokoa izango da zehapena 24 ordu gehigarriko. Gainerako urraketa larriei dagokienez, zerbitzu zehatzaren edo ebazpenaren kostuaren bikoitza izango da zehapena.

ARDURADUN TEKNIKOA

Ingurumen Arloa

ZINEGOTZIAREN ONIRITZIA

Ingurumen Arloa

I. ERANSKINA IKASTETXE PUBLIKOAK:

1.- ANDRA MARI LHI

2.- SARATXAGA LHI

3.- GEROA IKASTOLA

4.- GOBELA IKASTOLA

5.- JUAN BAUTISTA ZABALA LHI

6.- SAN MARTIN LHI

7.- LARRAÑAZUBI LHI

8.- ROMO LHI

9.- SAN IGNAZIO LHI

10.- ROMO LHI ZUBILLETA

11.- HHI (Helduen Hezkuntzako Ikastetxea)

12.- MUSIKA ESKOLA

13.- TURISMO BULEGOA

14. EGUNSENTIA HAURTZAINDEGIA

15.- INGURUMEN GELA